

Arakilgo euskara: kokagunearen auzia eta datuen fidagarritasuna

IÑAKI CAMINO*

1. SARRERA

Guti bildu eta guti aztertu den euskara da Arakilgoa. Mintzo hau aztertzen hasten den ikertzailea eremu labainkorrean sartzen da. Eskulekuak eta mailak daldaraka dituen eskailera mugikorrean zehar abiatzean senti daitekeena sentitu ohi du batek, hizkera horretaz berri zenbait ematen hastean: lekukotasunak guti dira eta beren fidagarritasunaz zalantza izateko aukerak, ordea, ugari. Bertako idazlerik ez da ia ezagutzen eta kokagune ziurreko idazkiak eskuko eriekin zenbatu daitezke: inkestetan bildu diren datu bakanak baliatuz Arakilgo euskara ezagutu eta aztertu nahi duen ikertzaileari, ziurtasunik ezaren sentipena eragiten dio honek guztiak. Artikuluaren hondarreko ataletan ikusiko da argiago zerengatik diogun hau.

Sakanako euskara aztertzeke gu baino jende jakinagorik badela jabetzen gara (cf. Erdozia 2001); dialektologiaren tolesturak eta azpildurak ongi ikus eta uler daitezke Etxarri-Aranazko plazan, baina ez da kaltegarri gertatuko, Arazko, Putterriko, Beriaingo, Ma(d)alengo malkorreko edo Gazteluko gainera igatea, bertatik ageri den ikuspegiak gogoeta egiteko.

Burundako euskararen berezitasunak aitorturik, Sakana erdialdeko eta Arakilgo mintzoa batera dakuski Jose Luis Erdoziak oraintsuko lan batean (2005: 75):

...bi hizkera eremu berezituak ezberdin daitezke Sakana osoan: Burundakoa, alde batetik; eta gainerakoa, Sakana erdialdea eta Arakil, beste aldetik.

* Euskal Herriko Unibertsitatea

Biziki eskertzen ditut Koldo Artola euskalkizale arretatsu eta jarraikiak eskuzabaltasun osoz utzi dizkidan Arakilgo emaitza batzuk eta artikulu honen lehen idatzaldiari egin dizkion oharrak. Lan hau Nafarroako gobernuak bermatzen duen GN 00114.130-16262/2004 ikerketa proiektuan txertatzen da.

Sakanako euskararen ikertzaileari ez zaio iruditzen Arakilgo euskara Irañetakotik oso bestelakoa izanen zenik; dioenez, “erabat antzekoak izango genituzke”. Berebat, Erdoziak “Irañetako euskarak Sakana erdialdekoarekin bete-betean bat egiten duela” adierazten du bere lanaren ondorioetan (2005: 75).

Gure ustean ere, Irañetako euskarak Sakana erdialdekoarekin bat egiten du, lotura sakona du, Erdoziak beste artikulu batean berriki era egokian erakutsi duenez (2004a: 514), baina erabili dituen frogez eta saihestu dituen datuez ohar batzuk egin daitezkeela uste dugu.

Sakana erdialdeko euskara eta Erdoziak dioenez Arakilgoaren erabat antzekoa den Irañetako euskara batzen dituzten ezaugarri gehienak, ez dira esklusiboak, ezaugarri horien konbinazioan datza esklusibitatea; Sakana erdialdeko ezaugarrioren zerrendarako, ikus bedi Erdoziaren tesi lan ederra (2001: 400-412). Sakana erdialdeko eta Arakilgo euskara batzen duten ezaugarri hauetarik batzuk, Arakildik eskuin eta Burundatik ezker ere hedatzen dira: *geñean* ‘gainen’, *edozein* ‘edozein’ erakoak ditugu Garcia de Albeniz araiararen XVIII. mendeko otoitzean, esaterako (Altuna Otegi 1995).

Gogoan izan behar da, mintzoak taldekatzeko argudiorik edo frogarik hoberena, ezaugarri esklusiboen sortak izan ohi direla. Irañetan eta Arakilen ageri diren eta Sakana erdialdekoak ere badiren euskararen ezaugarri gehienak esklusiboak ez baldin badira, zertara dator horrenbesteko konbentzimendu pertsonala, Irañetako eta bidenabar Arakilgo mintzoa, ezkererat, Sakana erdialderat lerrarazteko? Hizkuntzalaritzaren alderditik ikusirik oinarririk ez baldin badu, zerendako sortu behar da “sakanerak” izendapen hori? Hizkuntza-tasunen arabera, orain arteko “Burundako euskara”, “Sakana erdialdeko euskara” eta “Arakilgo euskara” izenak zuzenak eta zehatzak dira. Lehen ere biziki salatu izan da terminologia hizkuntza-tasunen geografia-hedadurak eratzen duen egituraren arabera finkatu ez izana, oinarritzat mintzoen geografia-eskualdea hartu izana; cf. Pavle Ivić-en ikuspegia (1962: 34):

Considering the multitude of isoglosses crossing one another in all possible directions, territorial dialects have often proved to be fictitious entities, established on the basis of arbitrarily chosen features, or on the basis of extralinguistic criteria.

Arakilgo euskarak eskuinaldera dituen loturak eremu zabalera hedatzen dira, Sakana erdialdea baino eremu zabalagora, gainera; eremu zabal horretan bada ezaugarri multzo handixko bat, ibar jakin batzuetan ageri dena, eskualde beretsuan errepikatzen dena, geolinguistikoki koherentea den eremu bat finkatzen duena. Arakilgo euskararen ezaugarri ugari eremu zabal horretan, eta eremu zabal horretako euskararen ezaugarriak Arakilen ageri baldin badira, zerengatik ez du Erdoziak Irañetako eta Arakilgo euskara eskuin ere lerrarazi, Irañetako eta Arakilgo euskarak Sakana erdialdekoarekin batera dituen ezaugarriak esklusiboak ez baldin badira?

Zerengatik dute Arakildik ezkerera dauden loturek edo ezaugarriek eskuinera daudenek baino garrantzi handiagoa, esklusiboak ez badira eta eskuinekoa baino eremu murrizagoa eratzen badute? Espezifikagoak direlako? Nola neurtzen da espezifikotasuna, esklusibitatearen arabera ez baldin bada? Ezaugarriek hartzen duten geografia-eremuaren arabera, agian? Geografiaren aldetik Sakanako hizkuntza-eremua Arakildik eskuinera linguisti-

koki sortzen dena baino murriztagoa delako, espezifikoagoa dela pentsa daiteke? Hizkuntzaz kanpoko arrazoiak litzateke hori, eta beraz, izatekoz ere, arrazoi arbitrarioa.

Ez da honelakorik deus aipatzen Erdoziaren artikuluen hasieran eta egi-learen ikuspegi teoriko-metodologikoaren nondik norakoez jabetu ezinik gaude. Metodologia arazoa dago honetan guztian, frogen kalitateari dagokiona; Arakilgo hizkeraren kasuan hartu den erabakia ez da trantsizio hizkeren izaera dinamikoaren eta hizkeron jokaera dialektikoaren araberakoa.

Erdoziaren ustez Irañetako mintzoak Sakana erdialdekoarekin “bete-betea” bat egiten du. Irañetako euskara zerbait baldin bada, trantsizioko mintzoa da eta mintzo hauen ezaugarri nagusia, hemendik kanpo bezala baita Euskal Herrian ere, polimorfismoa izan ohi da: Irañetako egungo hiztun batek *atra* ‘atera’ & *ata*, *erte* ‘arte, tartea’, Uhartea-Arakilgo dotrinak dakarren bezala *ē arte*, *xegi* ‘jaiki’ & *jegi*, *tokiyen* ‘tokian’ epentesiduna & *garie* ‘garia’ epentesigabea (areago, *andriyakin* ‘anderearekin’) bezalako aldaerak erabiltzen baldin baditu, eta duela hogeita hemezortzi urte murginduetar batek *erran* & *esan*, bi aldaerak erabiltzen baldin bazituen, hizkera horrek deusekin ere “bete betean” bat egin dezakeela pentsatzea paradoxikoa da: ez du “bete betean” bat egiten, ezina da hori.

Sakanako euskara banatzean Burundakoari nortasun handia aitortu behar zaiola onesten dugu, eta izan ere, halaxe frogatu da (Zuazo 1994), baina ez dugu uste Sakana erdialdeko euskara eta Arakilgoa oro har zaku berean sartu beharrak direnik. Ez dugu adierazi nahi bi euskalki desberdin direnik, baina aldea dago batetik bestera eta alde hori mailaz maila aztertzea izan beharko luke gure helburua ahal izanez gero, erabaki sendoak hartzea eta etiketak ezartzea baino areago.

Lakuntzako hiztun adineko batek esan digunez, Lakuntzako mintzoa eta Irañetakoa ez dira berdinak, *kanbiatzen da asko*. Asimetria hori neurtzean, geografia-eskualde bakarrera sobera lerratzen diren ikuspegiak saihestu behar dira eta irizpide teoriko-metodologikoak aintzat hartu, berriki adierazi dugun bezala (2004b), baina egun Euskal Herrian afera honetan ez dago iritzibatasonik, ezta gaiari buruzko analisisetan murgiltzeko zaletasun berezirik ere.

Gulibar, Atetz, Ultzama, Odieta, Txulapain, Ezkabarte, Olaibar edo Anue alderdiko nafarrera erdialdeko horri eta ekialdeko Nafarroara hedaturik ageri diren ezaugarri anitzi loturik sumatzen dugu guk Arakilgo euskara, baina jakina, horrek ez du esan nahi Sakana erdialdeko eta Arakilgo euskarak lotura sakonik ez dutenik. Lehen ere agertu dugunez (1999-2001, 2004a, 2004b), Sakana erdialdean eta Arakil ibarrean (Arakilgo ekialdea barne), ez zen euskaraz berdin mintzatzen: Sakana erdialdeko mintzorat egiten du Lakuntzak eta beste era batzuk ageri dira, esaterako, administratiboki jardukiz Arakil ibarreko lehen herria den Murginduetan, egun hutsik eta hertsirik dagoen *Murgi(e)ta* herrixkan, bertakoen eran izendaturik. Grabitazio indar linguistikoko desberdinen menpe ibili dira Lakuntza alde batetik, eta Irañeta, Murginduetan eta oro har Arakil alderdia, bestetik.

Ana Maria Etxaideren 1965-1967 bitarteko inkestaren emaitzetan adibide interesgarriak ditugu: Murginduetaz ezagutzen den alderdi bakarrean berderen, eta lexikoa da ezagutzen dugun atala, Lakuntza ez bezala, Murginduetan Iruñerriko euskarari begira dago hitz edo aldaera batzuetan. Ez dezagun ahantz, Murginduetan, Irañeta bezala, Bonaparte printzearen eskeman

dialekto muga dela; Irañetaren eta Murginduetaren ondoan dagoen Arakil ibarreko Ihabar da Bonaparteren mapan hegoaldeko goi-nafarrerari dago-kion lehen herria.

Sakanan gaindi goazelarik, herri guztiak daude bata bestearen aldakan, baina halaz ere, kilometro guti batzuen gora-beheran euskara aldatzen da: halaxe gertatzen da Burundan eta bada honetatik zerbait Sakana erdialdetik Arakil alderat goazela ere. Ageriko eragile orografikorik ez dirudi dagoenik, eremu zelaia baita Sakana, behaztopa handirik gabekoa eta aise da batetik bestera mugitzea. Soziologikoki Iruñerriak eduki zezakeen eragina eta erakarpena da, guk uste, Arakilgo euskara aztertzean aintzat hartu behar dena, eta bestalde, ezin atzendu da, Iruñetik goiti dauden ibarretarik Arakileria dagoen distantzia laburra dela. Iduri luke Iruñerriko eragina nabarmena izan dela Arakil aldean, hara begira bizi izan direla gehiago.

Iruñerriarekin loturik dago Arakil: bertako herri txiki horiek, Iruñerriko herrixken egitura eta distribuzio berbera dute. Jabe txikien eskuetan dago lurra Sakanako erdialdean eta mendebalean, baina lurraren jabegoaren egitura aldatzen hasten zaigu Arakilen: bertan lur sail handien jabegoak ageri dira, eta ugari, gainera: euria ere bakanduz doa eremu honetan, Iruñerria hurbilduz goazen heinean. Alfredo Floristán Samanes-en hitzek diotenez (1978: 165):

...puede afirmarse que el ayuntamiento de Araquil marca la transición entre la Navarra húmeda del NO y la prepirenaica Cuenca de Pamplona.

Itzul gaitezen, ordea, hizkuntza-argudioetara. Ihabarko daturik ia ez dugun arren, Lakuntzako eta Murginduetako 1965-1967ko emaitzak eta Irañetako (2005) hizkuntza aldaerak dakartzagu gure ikuspegia oinarritzeko.

2. ARAKILGO EUSKARAREN KOKAGUNE DIALEKTOLOGIKOAZ

Garrantzi berezia du Arakilgo euskararen gaiak Euskal Dialektologian, Luis Luziano Bonapartek ibar horren barrenean bi euskalkiren muga finkatu baitzuen XIX. mendean. Dialektologiaren alderdi teoriko-metodologikoaz arduratzen den nornahirendako, mintzoen trantsizio guneak arretaz eta sakon aztertzea gauza beharra da datuen izaeraz behar den bezala ohartzeko. Ikus, besteak beste: Camps (1986), mendebaleko languedoc-en mugaz; Brasseur (1985), Normandiako mugez; Melis, Verlinde & Derynck (1989: 101), waloiairen eta pikardoaren arteko muga zurrunik ezaz; Saura (2001), katalunieraren eta aragoieraren mugaz; Recasens (1985), ekialdeko katalunieraren erdiguneko alderdian Camp de Tarragona-ko mintzoak duen jokabideaz eta muga aferez; Gutiérrez Tuñón (1985) eta García Arias (1997), asturiera-leoneraren eta galegoaren arteko mugaz; Fernández Rei (1985 eta 1990: 106-115), galegoaren mugez; Britain (2004: 612), Ingalaterra barrenean, Cambridgeshire, Norfolk eta Lincolnshire artekoaz; Zelaieta (2005, argitaragabea), nafarreraren eta erdialdeko euskalkiaren arteko mugaz.

Jardunbide honetan, hizkuntza-datu batzuei aitortzen zaien eta beste batzuei ukatzen zaien garrantziaren arabera hartzen dira erabaki dialektologikoak eta beraz, ikertzailearen irizpideen eta ezagutzaren ondorio zuzena da dialektoen banaketa, mintzoen sailkapena. Erabaki sobera subjektiboek bidea hertsu nahian eta jokabide ahalaz objektiboagoa erdiesteko sortu zen bere ga-

raian dialektometria, ez zen dialektologialarien nahikari hutsa gertatu, ez zen erabaki gratuitoa izan, hizkuntza-datu guztien artean hautua egin beharra baztertzeko sortua baizik: ikara ematen baitu batzuetan ponderatzen jardun beharrak, batez ere eskuleku teoriko-metodologiko ziurrik, sendorik, gehienek onetsirik edo estandarizaturik ez baldin badago.

Printze euskalariak ipar goi-nafarreran kokatu zuen Murgindueta eta Irañeta herrietako mintzoa, Uharteko, Arruazuko, Lakuntzako eta Arbizukoaren sailera, Sakana erdialdetsuko hizkerekin batera; haatik, hego goi-nafarreraren barrenean kokatu zuen Ihabarko eta bertatik eskuinera dauden herrietako euskara: Hiriberri, Satrustegi, Zuhatzu, Ekai, Etxarren, Egiarreta, Etxeberri, Irurtzun, Izurdiaga, Errotz eta Urritzolako, hain zuzen ere. Hego goi-nafarreraren barrenean, Bonaparteren iritzian herrixka hauetako mintzoa da, Gulibarko, Antsoain, Itza, Zizur eta Oltza zendeetako, Olloibarko, Goñerriko, Gesalazko, Etxauriko, Girgillaoko eta beste zenbait herritakoarekin batean “Iruñeaz haratagoko” azpieuskalkia osatzen duena.

Harritzekoa da Ihabarko euskara, Murginduetakotik edo Irañetakotik baino, printzeak Gesalazkotik hurbilago sumatzea, Andimendia zeharkatzeko gizakiak duen zailtasuna horren nabarmena izanik. Irañetako egungo hitun batek ez daki garbi adierazten, Irañetatik Ihabarko euskarara Lakuntzako baina distantzia handiagoa ote dagoen: *difeentzia gutxi* dio, *gauza aundiik ez*.

Arakil gehieneko herrietako mintzoa hego goi-nafarreran sartu izana, ezin uka daiteke Bonaparteren erabaki bitxien arteko bat gehiago dela, baina horretatik ez da jarraitzen printzearen lana seriotasunik gabea izan zenik: azken buruan, irizpide kontua da. Sakana erdialdearen eta Arakilen artean hizkuntza-batasun osorik ez zegoela, gauza ezaguna da, bertako euskarazko datuak pixka bat ezagutzea aski da honetaz ohartzeko: datu batzuei eta besteei zein garrantzi ematen zaien da kontua, jakina, eta baita nondik eta nola so egiten zaien ere. Jose Mari Satrustegi zenak halaxe sumatzen zuen mintzoen kontu hau eta frankotan ahoz esana, Uhartetik eskuin euskara aldatzen hasten dela, alegia, idatziz agertu zuen euskaltzainak 1999an (344).

Iparreko eta hegoko nafarreraren gaiaz dugun iritzia azken urteotan eman dugu (1999-2001, 2003, 2004a); argitalpenotan, Arakilgo euskara, hego-nafarrera izendatu dugun azpieuskalkitik ateratzea eta nafarrera orokorrean kokatzea irtenbide egokiagoa dela erakutsi dugu, nahiz Arakilgo euskarak lotura duen bere-berezkoak diren hego-nafarreraren bi ezaugarriekin: alokutibo maskulinoko *-t-* morfemarekin (esaterako, Ihabarko *zakeeten* ‘zitzaidaan’ edo Irañetako *ziotet* ‘zioat’), eta *-eza-* gabeko iraganeko Nor Nork saileko *zouken* ☉ *zuken* ‘zezakeen’ erako ahaleko adizkiekin. Bestalde, hego-nafarreraren ezaugarri ia eksklusiboak diren, **j-* > *x-* txistukari sabaiaurrekoa eta *-zutu* atzizkia aipa ditzakegu, biak Arakilen ageri zaizkigunak.

Arakilgo euskararen kokaguneaz Bonaparteren iritziari aurre egiteko argudioak fonologian eta morfosintaxian bilatu ditugu batez ere, baina Arakilgo alderdi lexikoa aztertzea gauza beharra da, hor ditugu lekukotasunak interpretatzeko zain.

Ondoko lerroetan, Erdoziaren ekarriaren alderdi onuragarria atzendu gabe, Irañetako euskarak Sakana erdialdekoarekin batera dituen ezaugarri ia guztiak eksklusiboak ez direla eta Nafarroa Garaian oso hedaturik daudela ikusiko dugu. Bestalde, Erdoziaren ikuspegiaren alderdi ahula agerian utzirik,

Irañetako eta Arakil ibarreko euskarak eskuinerat dituen lotura sakonak ere aurkeztuko ditugu: Irañetako eta Arakilgo euskara, Sakana erdialdeko mintzoarekin dagoen bezala, Nafarroako erdialdeko hizkerekin eta Nafarroako ekialdeko ezaugarri batzuekin ere hertsiki loturik dagoela argi ikusiko da, izan ere, trantsizio hizkera baitzen Arakilgoa, Irañetako eta Murginduetako adibideek salatzen dutenez bederen.

Irañetako eta Arakilgo mendebaleko herri batzuetako euskara, 1970-2004 epearen barrenean nafarreraren hego-sartaldeko mintzoa dela ageri da Koldo Zuazoren mapan; hizkuntza-ezaugarriei begiratuz gero, nabarmena da Irañetako eta Arakilgo euskara, Zuazok (2003: 105) erdiguneko nafarrera eta hego-sartaldeko nafarrera izendatu dituen azpieuskalkien artean pivotatzen ari dela, eskuinera dituen loturak sakonak eta ugari direla eta ez dela Sakana erdialdeko euskararekin bete-betean bat egiten duen hizkera.

3. ARGUDIO ZENBAIT

3.1. Irañetako euskarak Sakana erdialdekoarekin bat egiten duela erakusteko, ezaugarri bildumatxo bat dakar Erdoziak azkentsuko artikulu baten ondorioetan (2004a: 513-4); jarraian, tasun horien berri emanen dugu llabur. Bokaletan: 1) *i* eta *u* goikoek eragin asimilazio aurrerakaria. 2) *iruzki* ‘eguzkia’ edo *itxe* ‘etxea’ aldaeretan gertatu hersketa. 3) *nun* ‘non’ hitzeko hersketa. 4) *eu* > *au* aldaketa diptongoan. 5) *e*-ren irekiera *baztar* ‘bazterra’, *asarre* ‘haserre’ bezalakoetan. 6) Hainbat metatesi: *kuttu* ‘ukitu’, *luzindu* ‘lizundu’, *kaprestu* ‘kabestrua’, *kijera* ‘kikara’ erdal “jícara”-tik, *mantzaliñe* erdal “manzanilla”-tik, *galtzarrotxa* ‘galtzorratza’, *andeitz* ‘gurdiaren lema’. 7) Aferesiak eta sinkopak.

Kontsonanteetan: 1) Asimilazio bustidura. 2) *guatze* ‘ohea’ edo *guartu* ‘ohartu’ hitzetako bilakabidea. Izenaren morfologian: 1) Prolatiboko eta destinatiboko *-tako* morfema. 2) Soziatiboko *-ki* & *-kin* morfemak. 3) Ablatiboko *-tik* & *-ti* morfemak. 4) Instrumentaleko *-s* atzizkia. 5) Erakusleetan hirugarren gradukoaren dardarkaria *arrek* ‘hark’ edo *arren* ‘haren’ adibideetan. 6) Zenbatzaileetan *irutan ogei* ‘60’, *lautan ogei* ‘80’, *irutan aun* ‘300’, *lautan aun* ‘400’, *bosten aun* ‘500’, *seitan aun* ‘600’, *zortzitan aun* ‘800’ erakoak. 7) Atzizki konparatiboan *-ago* > *-oo* bilakabidea. 8) Asimilazioa atzizki superlatiboan: *eroona* ‘eroena’, *biziina* ‘biziena’, *mutuuna* ‘mutuena’. 9) Laburdura gehiegitasun atzizkian: *luzegi* ‘luzeegi’, *aundigi* ‘handiegi’, *erogi* ‘eroegi’, *beandugi* ‘beranduegi’.

Aditzondo ugari dakar Sakana erdialdean eta Irañetan berdinak direnak: *lixta* ‘laster’, *aldiyen* ‘aldian’, *berriz*, *aurki* (ez da adierazten zein adieratan), *belexe* ‘berehalaxe’, *beandu* ‘berandu’, *bart*, *sarri* ‘askotan’ eta ‘laster’ adieretan, *lendaizko* ‘lehendabiziko’, *noizen bein* ‘noizean behin’, *sekule* ‘sekula’, *etziamu* ‘etzidamu’, *gero*, *lenguan* ‘lehengoan’, *eranion* ‘herenegun’, *onea* ‘hona’, *orrea* ‘horra’, *aita* ‘hara’, *nunei* ‘nonahi’, *nuanei* ‘noranahi’, *obeki* ‘hobeki’, *ongi*, *gezki* ‘gaizki’, *txarki* ‘gaizki’, *poleki* (ez dakar adierarik), *ederki*, *laixterkan* ‘lasterka’, *arriken* erdarazko ‘con viento fresco’-ren parekoa, *inbuluzken* ‘itzulipurdika’, *furrutekan* ‘zurrutaka’, *malamente* ‘alferririk’, *majo*, *erabat*, *raso* ‘arras’, *izugerri* ‘izugarri’, *gooti* ‘gogotik’, *nunbeitt* ‘nonbait’, *apike* ‘apika’, *bierbada* ‘beharbada’, *agi denes* ‘aidanez’.

Aditzaren morfologian: 1) *izendu*, *jakindu*, *ibildu*, *bieldu* erako partizipio analogikoak. 2) Etorkizuneko *-en* morfema. 3) Nor Nori aditz sailaren iraganekeo *-ki-* erroa. 4) *di-*ren aferesia *ttut* ‘ditut’, *ttuzu* ‘dituzu’ edo *ttiot* ‘dizkiot’ erako adizkietan.

Sintaxiaren sailean Sakana erdialdean eta Irañetan berdinak diren menderagailu sorta dakar eta alderdi lexikoa ere, Erdoziak bere artikuluan dioenez, ia berbera baliatzen da (2004a: 514).

3.2. Sailkapenak egiten hasteko, mintzoak batzuk besteekin biltzeko eta beste batzuetarik bereiz uzteko, gauza beharra da batera dituzten ezaugarriak zenbateraino espezifikokoak diren jakitea, Irañetan eta Sakana erdialdean bakarrik erabiliak diren argitzea, baina Erdoziak ez dakar honen berri. Sakana erdialdeko eta Irañetako edo Arakilgo ezaugarri bateratzaileek espezifikotasunik batere ez dutela esatera ez gara ausartzen, baina ezagun du arestiko ezaugarrietan ia ez dagoela tasun eksklusiborik, gehien-gehienak han-hemenka ezagunak eta erabiliak direla, Nafarroa Garaiko erdigune zabala barne.

Fonologiako ezaugarrien artean, bokaletan ageri direnak hedadura handikoak dira, *luzindu* ‘lizundu’ edo *galtxarrotx* ‘galtzorratza’ metatesiak izan ezik; kontsonanteetako bi ezaugarriak ere oso hedatuak dira Nafarroa Garaian; izenaren morfologian, Erdoziak aipatzen dituen deklinabideko atzizkiak, denak arras ezagunak dira Nafarroa Garaian, baita erakusleeta hiru garren graduko dardarkaria ere; *irutan aun*, *lautan aun*, *bosten aun*, *seitan aun*, *zortzitan aun* erako zenbatzaileetan egon liteke espezifikotasuna, baina inguruka ditu honelako aldaerak Sakana erdialdeko eta Irañetako nahiz Arakilgo euskarak: Txulapaingo Usin *iruetan egun* dugu *EAEL*-n eta Itzarbeibarren ere bazen *iruretan egun*; bestalde, superlatiboetako asimilazioan edo gehiegitasuneko morfemaren laburduran, guk ez dakusagu berezitasun nabarmenik; berebat, aditzondoetan ez da espezifikotasun handirik ageri. Aditzaren morfologiarako dakartzan lau adibideak ere, Nafarroa Garaiko ezaugarri arruntak eta hedatuak dira. Erdoziak dakartzan Sakana erdialdeko eta Irañetako sintaxiko menderagailuak ere ez dira Nafarroa Garaian ezezagunak; alderdi lexikoari dagokionez, ondoren erakutsiko dugu Irañetako eta Sakana erdialdeko mintzoan alde zerbait dagoela.

3.3. Sakana erdialderaino iritsi diren era gehiago ere badira, eskuin Nafarroa Garaiko erdigunean erabiltzen direnak; lau adibide paradigmatico ematen ditugu: 1) *iyende* ‘igandea’ hitzeko kontsonante frikari sabaikaria, Ergoienean, Uharten, Irañetan, Odietan, Ezkabarten edo Anuen ageri da. 2) **ezan*-en adizki pluraletan ageri den palatalizazioa ere, Arbizuko *txala* ‘ditzala’ edo Lakuntzako eta Uharteko (*gachazu*) idazki zaharretan duguna, arras hedatua da, Ultzaman-eta entzuten da; Anuen “ekarri” aditzaren pluraletan dugu bustidura bera: *damatxat* ‘daramatzat’, *damatxagu* ‘daramatzagu’. 3) **ezan*-en adizki pluraletan gertatu *-it-* > *-zki-* berrikuntza, hego-nafarrera guztian eta Zaraitzun nahiz Ipar Euskal Herrian duguna, Sakana erdialdeko Etxarri-Aranatzen ere ageri da: *zazkizula* ‘ditzazula’, *zazkigun* ‘ditzagun’ (Erdozia 2001: 265). 4) Ahaleko adizkietan *dezakeguke* ‘dezakegu’ erako aldaera pleonastikoak ditugu Ergoienean, Arruazun, Uharten, Irañetan, Ultzaman, Ezkabarten eta bestetan.

3.4. Osagai sistematiko anitzetan Sakana erdialdekoarekin bat egiten badu ere, badira Sakana erdialdekoak ez diren beste ezaugarri sistematiko batzuk Irañetan eta Arakilen, herri horretan nahiz ibar horretan eta beste al-

derdi batzuetan elkarrekin ageri direlako eremu zabal bati koherentzia ematen diotenak; geolinguistikoki garrantzi handikoa da hau eta beraz, azterketatik ezin saihestu ditugu ezaugarriok: **j*- > *x*- txistukari sabaiaurrekoa; -*rtz*-kontsonante taldea *ortzegun* eta *ortzillere* hitzetan; hirugarren mailako *ore* ‘hura’ erakusle singularra (Irañetan, esaterako, edota Uharteko dotrinan eta Koldo Artolaren datuetan Arakilgo herri gehiagotan); Sakana erdialdeko -*ti* ez, ablatiboan -*tik* morfema erabiltzen da Arakilen (*EI*-k Irañetan -*ti* dakarren arren, egun Irañetan eta 1983an Ihabarren -*tik* bildu dugu; Urritzolan ere -*tik* ageri da); -*zutu* atzizkia Irañetako *zarzutu* ‘zahartzaroa’ edo *gaztezutu* ‘gaztaroa’ bezalako hitzetan: Erronkaritik Irañetaraino hedatzen da, baina Lakuntzan ez da erabiltzen; hego-nafarreraz bezala, ahaleko iraganeko adizkietan “eza” gabeko aldaerak (esaterako, Irañetako *neuken* ‘nezakeen’, *zouken* & *zuken* ‘zezakeen’; *ecin ocultatu zuquian aurpeguico señalie* dakar XIX. mendeko Gastesi idazle irañetarrak (Ulyar 1987: 58); hego-nafarreraz bezala, ohiko -*k*-ren ordain, hiketa maskulinoko -*t*- morfema; Nor Nori Nork aditz sailean **i*- erroa; Nor Nori Nork aditz sailean -*it*- pluralgilea; bigarren pertsona pluraleko -*zte* egiletasun morfema; hirugarren pertsona pluraleko -*te* egiletasun eta datibo morfema; “joan” aditzaren aldaera trinkoetan Nafarroa gehieneko sistema, eta ez Burundako *niyu* ‘noa’, *diyu* ‘doa’ era edo Sakana erdialdeko *nue* & *niyue* ‘noa’, *due* & *diyue* ‘doa’ egitura; Sakana erdialdean ez bezala, oraineko Nor Nork adizkietan aldaera -*u*-dunak: *dut*, *dun* & *duk*, *du*, *dugu*...; “izan” aditzaren Nor sailean, hirugarren pertsona pluralean guztizko bokal asimilazioa gibelerat: *dee* ‘dira’ & *zeen* ‘ziren’; “izan” aditzean *dan* ‘den’ & *dala* ‘dela’ / *den* & *dela* arteko muga Arbizun dago, *den* & *dela* sailekoak Arakildik ekialdera doazela; bestalde, Burundan, Etxarrin, Arbizun eta Ergoienean erabiltzen den balio azaltzaileko *nolabeitt* partikula falta da Arakilen (Zuazo 1994: 339-340; Erdozia 2001: 333).

Maiztasunaren aldetik ere badira adierazi beharreko desberdintasunak: Sakana erdialdeko mintzoetan baino, aferesiak eta sinkopak maila handiagotan ageri dira Arakilen (Arakama 1994: 574; Zuazo 1998: 216; Erdozia 2001: 120); bestaldetik, -*rik* modu atzizkia Arakilen Sakana erdialdean baino erabiliagoa eta sistematikoagoa da. Aldiz, -*i* bokalaren bidez bukatzen diren hitzetan Sakana erdialdean sistematikoa den -*iye* epentesia, ez da Arakilen nagusitu: Ihabarren ez genuen entzun eta Murginduetako emaitzetan ere ez da ageri; Irañetan egun badira bilakabidearen oihartzunak, baina ez da sistematikoa; ekialdera, Urritzolako hondarreko hiztunarengan ere, adibide batzuetan ageri zen, baina beste batzuetan ez (Artola 1992: 192).

Ezaugarri hauetan guztietan, bat bada hedadura luzerik gabekoa dena: Gulibarren, Imotzen eta Basaburu Handian ere ageri den bigarren pertsona pluraleko -*zte* morfema, hain zuzen ere; bestalde, *ore* erakuslea ere ez da ekialdera iristen, baina eremu arras zabala erdiesten du erdiguneko Nafarroa Garaian.

Hartara, bada Irañetako eta Arakilgo euskara Nafarroa Garaiko erdiguneko hizkerari loturik daukan ezaugarri sorta sistematiko bat, Nafarroako ekialderat hedadura zabala duena, gainera. Hauetarik zenbait berrikuntzak dira eta garrantzia du honek ere: *x*- < **j*- bilakabidea; -*tik* morfema; hikako adizkietako -*t*-; -*it*- pluralgilea; hirugarren pertsonako -*te* morfema; *daye* ‘doa’ erako adizkiak; *dee* ‘dira’ & *zeen* ‘ziren’ erak eta azkenik, maiztasun handiagoko aferesi eta sinkopak. Ekialderaino iristen ez diren *ore* ‘hura’ erakuslea eta

bigarren pertsona pluraleko *-zte* morfema ere berrikuntzak dira. Berrikuntza hauek guztiak eta arestian ikusi ditugun Arakilgo beste ezaugarri ez berriak, ez dira Sakana erdialdekoak, eskualde honetan beste era batzuk ageri dira: batzuk mendebalekoak, beste batzuk Euskal Herriko erdigunekoak eta beste batzuk Sakanakoak berekoak.

3.5. Burundara eta Sakana erdialdera Euskal Herriko mendebaleko eta bereziki erdialdeko hizkuntza-ezaugarriak ausarki iritsi dira; ezaugarri horietarik, ez da ia mendebalekorik Arakilen, baina erdialdekoak bai, nahiz eta Sakana erdialdeko euskararen ageri diren baino maila apalagoan izan; honetan, Arakilgo euskara lotuago ageri da nafarrera orokorrari Sakana erdialdeko mintzoa baino: ondoren ikusiko dugun Lakuntzako, Irañetako eta Murginduetako alderdi lexikoa alderatzean hautemanen da hau eta arestiko atalean ageri diren ezaugarri sistematikoek ere, Arakilgo hizkera, nafarreraren alderdi zabal bati eta ekialdeko era arras hedatu batzuei uztarturik kokatzen dute; aipatu diren ezaugarri bereizleokin alderatuz gero, Euskal Herriko erdialdeko hizkerei hurbiltzen zaie Sakana erdialdeko euskara batzuetan, eta beste batzuetan, Sakanako bereko ezaugarri bereziak ageri ditu; hondarreko sail honen adibide zenbait eman dezakegu: hotsen aldetik, *yakusi* ‘erakutsi’, *yaztun* ‘eraztuna’, *udse & utse* ‘ura’, *laurri* ‘neurria’, *lazka* ‘nazka’, *fake* ‘bakea’; epentesietan Sakana erdialdeko *-ua* > *-uba* aipa daiteke, Arakil guztian *-ue* soila dena: Uharten bide dago muga; morfologian, Nor Nori Nork aditz saillean, **eradun*-etik eratorritako adizki laguntzaileak Ergoienean eta Etxarrin; lexikoan *itzoo & itzao* ‘goratu’ itema, Landuchioren *ysçeguo* ‘caualgar a cauallo’ gogora dakarkiguna. Sakanako ezaugarriok nafarrera orokorrean edo Nafarroako ekialde zabalean ageri ez direnak ditugu.

3.6. Bonaparte printzeak Ihabartik eskuinaldera dauden herrietako mintzoa hegoaldeko goi-nafarreraren sartu zuela dakigu, baina Murginduetatik eskuin dauden Arakilgo herrietako euskara guti ezagutzen dugu. Pentsatzekoa da, halaz ere, Arakilgo ekialdeko eskualdeko herrietako euskara ez zela gutiago lotua Iruñerrikoari Murginduetakoa baino, nahiz ez dakigun, Irurtzun ondoko Arakilgo herrietan, iparreragoko edo Euskal Herriko erdialdeko mintzoen eragin hedatua, Ihabar, Hiriberri eta horietan baino nabarmenagoa ote zen, ala era berberak erabiltzen ote ziren. Daturik ezak ilunpean utzi gaitu.

3.7. Sakana, alderdi guztietarik egon da loturik ondoko eremu euskaldunei: Arabako, Goierriko, Araizko, Larraungo, Imozko, Gulibarko, Itza eta Oltza zendeetako, Olloibarko, Goñerriko, Deierriko eta Ameskoako mintzoak aintzat hartu beharrak dira Sakanakoa aztertzeko, datu horiek eskueran izatea beti aise ez bada ere. Irañetako euskarak Sakana erdialdekoarekin “bete-betea” bat egiten duela adierazi baita, ñabardura bat egin behar dela deritzogu. Arrazoi du Erdoziak Irañeta Sakana erdialdeko euskararen ongi kokaturik dagoela adieraztean, baina ez dago “bete-betea” kokaturik: Etxarri edo Lakuntza bezainbat ez, bederen. Erdoziak ongi erakutsi bezala, ezkerretik datorkion lotura handia da, baina “bete-betea” aditzondo horrek eskuinetik Arakilgo euskarari datorkion lotura ukatzen du. Irañetako euskarari ez zaio soilik Sakana erdialdetik so egin behar, ikuspegi geolinguistikoa galtzea litza-teke hori.

3.8. Arakilgo euskarari Nafarroa Garaiko erdialdetik, Iruñerrietik eta are ekialdetik eragina datorkio, usu Gulibarren, Atetzen, Txulapainen, Odietan,

Ultzaman, Anuen, Ezkabarten, Olaibarren, Eguesibarren, Artzibarren (are Aezkoan), Oltzan, Olloibarren, Goñerrian eta inoiz Gesalitzen ere ageri dena, baina Sakana erdialdean aurkituko ez duguna. Ezaugarri horietarik batzuk Irañetan eta bereziki Murginduetan ageri zaizkigunez, Sakanan bigarren mailako banaketa bat gauza beharra dela uste dugu: ongi deritzogu lehenik Burunda vs. gainerako Sakana bereizteari, baina gainerako Sakana horren barranean, Sakana erdialdea vs. Arakil bereiztea ere gauza beharra da. Alderdi gramatikal sistematikoagoetan bezala, alderdi lexikoan ere garden ageri da errealitate hau; lexikoa ez da baztertzeko moduko gaia: zertarako aztertzen dugu alderdi hau, bestela?

3.9. Hurrengo adibideetan hitzak alderatuko ditugu, Lakuntzako euskarak, Irañetakoak eta Murginduetakoak, bakoitzak bere aldetik zein lotura geolinguistiko dituen ikusteko; Lakuntzako eta Murginduetako emaitzen iturria Etxaide da (1965-67) eta Irañetakoak guk bilduak dira (2005). Lehen adibide sorta honetan, Lakuntzako hitzak Euskal Herriko erdialdeko euskarari dagozkio (mendebalekoa ere bada *txu*):

Lakuntza	Irañeta	Murgindueta
<i>goizalde</i>	<i>argistian</i>	<i>argiaste</i>
<i>aittapuntekue</i>	<i>aitegutxe</i>	<i>aitegutxe</i>
<i>amapuntekue</i>	<i>amagutxe</i>	<i>amautxe</i>
<i>txu</i>	<i>lixtu</i>	<i>lixtu</i>

3.10. Bigarren sorta honetan, aldaerak dakartzagu eta berriz ere, Lakuntzako batzuk mendebalerat begira daude, lehenak esaterako; Lakuntzako beste batzuk Euskal Herriko erdialdekoak dira, edota bertako aldaera berriak dira; aldiz, Irañeta eta Murginduetakoak, gehienak nafarrerari bakarrik ez dagozkionak izan arren (*amiru* da Nafarroa Garaian baizik ageri ez den bakarra), Nafarroa Garaian arras hedadura handia dutenak dira:

Lakuntza	Irañeta	Murgindueta
<i>idargi</i>	<i>illargi</i>	<i>illergi</i>
<i>ider</i>	<i>iller</i>	<i>iller</i>
<i>arrantze</i>	<i>arrotziek</i>	<i>arrautziek</i>
<i>itxi</i>	<i>ertsi</i>	<i>ertsi</i>
<i>ameiru</i>	<i>amiru</i>	<i>amiru</i>
<i>abeats</i>	<i>abrats</i>	<i>ab(e)rats</i>
<i>aitzur</i>	<i>eltzur</i>	<i>altzur</i>
<i>ostots</i>	<i>ortots</i>	<i>ortots</i>
<i>aixun</i>	<i>auxiñ</i>	<i>auxiñ</i>
<i>zapittel</i>	<i>iyel</i>	<i>iel</i>
<i>kubue</i> 'sehaska'	<i>kune</i>	<i>kune</i>

3.11. Hurrengo hitz eta aldaeretan, Lakuntzako euskaratik Irañetakora alderdi lexikoan jauzi zerbait badela ikusiko dugu; jauzi horren egitura geolin-

guistikoa garrantzizkoa da, gainera: Irañetako hitzok ez dira Sakana erdialdean erabiltzen (berriz ere, Dorrao salbuespena da honetan, baina aitzinxeago dihardugu honetaz), eta hitzok arras eremu zabal eta homogenea harrapatzen dute Nafarroa Garaian. Erdoziak dioenaren aurka (2004a: 514), erakusten dute ez dela “lexiko ia berbera baliatzen Sakana erdialdean eta Irañetan”, edota esan horri ñabardurak egin dakizkiokeela; Sakana erdialdeko eta Irañetako lexikoan antzekotasunak handiak izan arren, ezin atzendu dira Irañetatik eskuinaldera daudenak, zeinak Sakana erdialdean falta baitira: urrunera iristen dira eta dialektologiaren aldetik biziki adierazgarriak dira:

Lakuntza	Irañeta
<i>parra</i>	<i>irri</i>
<i>ostu</i>	<i>ebatsi</i>
<i>masosta</i>	<i>martutse</i>
<i>ataa</i>	<i>atra & ata</i>
<i>arte</i>	<i>erte & arte</i>

3.12. Aldaeren hurranen sorta honetan, berriz, Irañeta ez doa Murginduetarekin batean, Lakuntzarekin baizik: Murginduetako *bago* (bertako hitza izatekotan, baina ikus honetaz zazpigarren atalean dioguna), *beldur*, *erran*, *ideki* edo *ligu*, Nafarroako erdialdeko eta ekialdeko franko lekutan ibiltzen diren aldaerak dira:

Lakuntza	Irañeta	Murginduetak
<i>esan</i>	<i>(e)san</i>	<i>esan & erran</i>
<i>bildur</i>	<i>bildur</i>	<i>beldur</i>
<i>liddle</i>	<i>liyua</i>	<i>ligu</i>
<i>irigi</i>	<i>idei & zabaldu</i>	<i>ideki</i>
<i>pague</i>	<i>fago</i>	<i>bago</i>

3.13. Murginduetako edo Ihabarko euskararen muga zerbait bazela erakusten duten adibide gehiago ere badira: Lakuntzan *goaizek* ‘guraizeak’ dena, Ihabarren *piruxa* da (Huarte 2003: 143), Anuen, Ultzaman, Atetzen, Imotzen edo Gulibarren bezala (Irañetan *puuxek* bildu dugu, Unanuko *buruxek* gogorarazten duena; K. Artolak Murginduetan *pruxak* bildu du, baina Ihabarren *buruxe*). Irañetan *soro* esan ohi dena, Ihabarren *alor* esaten zen, Irañetako lekuko adineko batengandik jakin dugunez; Murginduetan ere erabiltzen zen *alor*; cf. Salaberri Zaratiegi (1998: 73), non adierazten baitzaigu Sakana toponimian mendebaleko lehen “alor” Irañetan ageri dela.

3.14. Beste adibide zenbaitetan ere badakigu Arakilgo adibideak ez datozela Sakana erdialdekoekin batera: *txilbor* (Arakil, Urritzolan *zilko* bildu bada ere) vs. *zil* (Sakana erdialdea); *daus & deus* (Arakil) vs. *ezer* (Burunda, Sakana erdialdea); *aski* (Arakil) vs. *neiko* (Sakana erdialdea), *EI*-k Irañetan *nai-ko* badakar ere, baina agian ‘ugari’ adierazten du (Erdozia 2004a: 513); *zarra-po* ‘apoa’ (Arakil) vs. *kunkun* (Sakana erdialdea), *EI*-k Irañetan *kunkun* badakar ere. Berdin gertatzen da *mintzetu* (Irañetan *guk* bildua) vs. *itz ein* (Sakana erdialdea) adibidean ere, nahiz K. Artolak *itz ein* bildu duen Arakilen, eta

Gulibarko Larunberaino ez dakarren *mintzetzen*. Arakil guztian *g-* gabeko aldaerak ditugu “orai(n)” hitzean: *orein* (Irañeta), *orain* (Uhartea, Murginduetan, Ihabar, Egiarreta) vs. *guai* (Altsasu, Etxarri, Arbizu, nahiz Ergoienean *orei* bildu den). Oro har, Sakana erdialdean *koipe* dago eta Arakil guzti-guztian *uriñ*, nahiz J. L. Erdoziak *uriñ* Lakuntzan eta K. Artolak Etxarrin bildu duten; Karasatorrek, Erdoziak eta Ulaiarrek (1991) *koipe* dakarte Etxarrirako eta hori bera bildu da Dorraon, Unanun, Arbizun, Lakuntzan eta Burundan.

3.15. Lehenago ere adierazi dugun bezala (Camino 2004a: 106), zenbait adibidetan iduri luke Sakana erdialdeko euskararen Ergoienean dela ekialdera gehien begiratzen duena; ez dakigu hori Arakilekin harreman zuzenagoa eduki duelako den, ala Goñerriko euskaldunekin hartu-emanu eduki dutelako den; Beriairako zoko horretan aldaera gordetzailagoi eutsi zaielako, agian? Izan beharko du azalpen zenbait.

Unanuko eta Irañetako *itzerrri*, *esnatu* da Lakuntzan; Dorraon *txirriña* ‘enara’ dena, Irañetan *xirriñe* da eta Murginduetan *zirriñe*, baina Sakana erdialdeko hitz orokorra *iñere* da; *txirrin* Atetz eta Ultamaraino iristen da. Lakuntzan *txu* dena, *lixtu* da Irañetan eta Murginduetan, Unanuko *lextu* eta Dorraoko *leixtu* gogora dakartzana; Unanuko, Irañetako eta Murginduetako *bakotx*, *bakotz* da Lakuntzan; Arbizun eta Etxarrin *guai* ‘orain’ dena, Ergoienean *orei* da. Lexikotik landa, Nor Nork aditz sailean ahaleko adizkietan *-ke* pleonastiko berria (esaterako *(de)zakeuke* ‘dezakegu’, *(de)zakezuke* ‘dezakezu’), Ergoienean, Arruazun, Uhartea, Irañetan eta Nafarroa Garaiko erdigune hedatuan ibiltzen da: Basaburuan, Ultaman, Ezkabarten eta Anuen bederen.

3.16. Galdua da Arakilgo euskara, ez da berezko euskaldun jatorrik gelditzen Ihabarren edo Murginduetan, baina ezagutzen dugu ondo-ondoan dagoen Irañetako euskara, herri hau administratiboki berez Arakil ez bada ere; bada Arakil ibaiaren izena daraman ibarrekoa, ordea. Herri honetako mintzoa bi eremutarat pivotatzen ari da: alde batetik, Sakana erdialdekora, eta egun ez du jatorrizko euskararik eskuin, baina Arakilgo euskarari begira ere egon da orain artean Irañetako; Arakilen gaindi etorri diren berrikuntzak Irañetako euskararen ageri dira, eta hauetarik gehienak ez dira Sakana erdialdekora iritsi. Berrikuntzok, gainera, Nafarroa Garaiko erdigune zabalekoak dira, eta beren arteko hainbat ezaugarri ekialderaino iristen dira. Ezaugarriok alderdi fonologikoari eta morfologikoari dagozkio. Lexikoaz den bezainbatean, ikusi dugu Murginduetan usu Iruñerria eta ekialdera begira dugula; Irañetak ere, hainbat hitzetan jokaera bera ageri du, beste adibide batzuetan Sakana erdialdearekin ere lotura duela ageri den arren.

4. METODOLOGIAZ

Euskal Dialektologiaren berankortasunaren, tradiziozko ezaren, formazio apalaren eta metodologia sobera inplizituaren ondorioak jasatea dagokigu oraingoz; ez dago ohiturarik egiten diren hautuak argudiatzeko eta hori baitzepadakoa da subjektibitatearen zama saihesten hasteko. Aztertzen den mintzoa dialekto-etiketa baten barrenean sartzeko helburua lortzea baino, “nafarreraren” adigaia Sakana erdialdean edukiz, baldintzaz edo ezaugarri konbinatzailez jantzen saiatzea onuragarriago da, Larraungo euskararen erakutsia atzendu gabe, beti ere: cf. Erdozia (2001: 388-390), non Sakana erdialdeko euskara Aezkoakoarekin alderatzen den eta Larraungoarekin ez.

Jardunbide apala da dialektologia, baina ezagutza kontuetan lasterbideak ez dira gauza ona. Helmuga bezain interesgarria izan ohi da usu bidea, ordea, eta bertako behatopak abstrakzioz gainditzean lor daitezkeen ereduak eta beren balizko kalitatea beharagoak ditu Euskal Dialektologiak etiketak baino; haatik, horrek, esplizitatzea, argudiatzea eta errealitate paradoxikoei aurre egin beharra dakar; mahai gainean dagoen datu andana horretatik abiapuntuko ideia laguntzen ez duten formei ezikusiarrena egitetik, ez dator onik. Helburu etiketatzailerik biribilak makesten dituzte eta haste-hasteko hipotesiak hondatzen mahai gainean ditugun datu eta egitura lauso, sobera konplexu eta ernegarazle horiek, baina datu horiek aintzat hartzetik eta berentzat ere kokagune edo uztartze egokia bilatzetik etorriko da Euskal Dialektologiaren onurarako gertatuko den aitzinamendua, ez da etorriko dialektala dena dialektologikotzat saltzetik.

Arakilgo euskaraz dugun iritzia datuak eta argudio guti zenbait baliaturik aurkeztu ondoan, Arakilgo emaitza dialektaletan ageri diren arriskuen berri eman nahi dugu orain.

5. ARAKILGO DATUEN FIDAGARRITASUNAZ

Arakilgo lekukotasun lexikoen artean garrantzi handikoak dira A. M. Etxaidek 1967an Murginduetan herriko seme bati bildu datuak (1989). Inkesta 70 urteko Juan Goñi (1896) izeneko jaunari egin zion, baina ez bere sorterrian, Etxarren herrian baizik, bertan bizi baitzen lekuko hau; hamabost urteak arte Murginduetan bizi izana zen jaun hau eta bere herrian euskaraz mintzatzen zela adierazi zion Etxaide inkestagileari. Orain arteko gure lanetan Etxaideren datuok baliatu ditugu (1999-2001, 2004a, 2004b). K. Artolak Murginduetan bildu datuak ezagutu ditugu gerora; inkesta bateko eta besteko erantzunak alderatzeak ez dugu uste Arakilgo euskaraz ditugun zalantzak osoki argituko dituenik, baina zenbait nahasmen sailhesten lagundu dezakeelakoan, lerro xumeok idaztea erabaki dugu. Lehenago ere adierazi dugu Arakilgo euskal datu dialektalen fidagarritasunarena gai korapilatsua dela; egun dakartzagun datuek areago erakusten dute zinez kontuz ibili beharra dagoela Arakilgo emaitzak erabiltzean.

Etxaideren Murginduetako datuak 1967 urte hasierakoak dira eta K. Artolarenak ia hogeitau urte geroagoak, 1985ekoak. Bi inkestetako datuetan sumatzen diren desberdintasunak ia hogeitau urte iragan izanari zor dakizkiokeela pentsa liteke, baina arazo nabarragoa dago honen guztiaren sakonean. Mailaz mailako trantsizio gunea da Arakil alderdia hizkuntzaren aldetik eta horrelako hizkuntza-egoeretan, erabiltzen dituzten hizkuntza-formen kokagune geografikoaz hitzunek eduki ohi duten ziurtasuna, ez da beste eremu batzuetako hitzunena bezainbatekoa izaten: polimorfismo gehiago izaten da hizkeren trantsizioa dagoen eskualdeetan. Bada honi erantsi beharreko beste eragile bat, gainera: euskara itzaltzen ari zen Murginduetan hirurogeiko hamarkadan eta ia itzalirik zegoen hogeitau urte geroago K. Artolak herri horretako datuak Pedro Arrarats Ieregi (1906, ama *murgietarra*, aita *ihabartarra*) jaunarengandik bildu zituenean.

Ulertu beharko da Arakilgo euskara itzaltzen ari den garaian, ibar honek hitzunek euskaldun larraundar, imoztar eta basaburutarrak gurutza ditzaketela usu Irurtzunen (gulibartar edo txulapaindar zenbait barne), baina urtean zehar entzun dezaketen euskara gehiena, Sakanako ezkerreko herrietakoa dateke: Irañetakoa, Uhartekoa, Arruazukoa, Lakuntzakoa, Arbizukoa, Etxarrikoa... Arakilgo euskaldunen XX. mendearen bigarren erdiko elkar hiz-

ketak, frankotan *out-group* deitu ohi direnak ziratekeen, beste euskara molde bat egiten zutenei begira mintzatuz kudeatuak. Pentsatzekoa da jarduera honek beren euskararen honddarretan aldaketak eragin zituzkeela eta polimorfismo maila bat bederen eragin zukeela; “zukeela” diogu, baieztapenok frogatzeko datu ziurrak lortzea zinez zaila delako.

XX. mendearen bigarren erdian itzali da Arakilgo euskara; bertatik mendebalera euskaldunak dira Burunda, Etxarri, Ergoiena, Arbizu, Lakuntza eta Arruazu eta gelditzen dira hiztunak oraino Uhartan edo Irañetan. Murgindueta ondoko Ihabarren 1983an egon ginenean, herrian sei bat euskaldun izan zitezkeela esan zigun euskaraz mintzatu gabe hirurogei urte omen zeramatzan Antonio Arraiza jaunak (1910); hamar urte lehenago herrian oso euskaldunak zirela aitortu zigun. Arratsalde hartan ez ginen jabetu egin genion inkesta llabur hura hedatu eta sakondu izanak, egun zenbateko balioa izanen zukeen. Egjarretan izan ginenean ere, euskaraz mintzatu ginen herriko seme batekin, Jose Lazkotz Goñirekin (1906) hain zuzen, baina berarengandik ez genuen daturik bildu, adierazi zigunez, K. Artolaren inkestei 1981ean erantzuna baitzen. Jende haiek guztiak joan eta gero, orain ez da jatorrizko euskaldunik Arakilen datu biltzeko.

Beharrik, K. Artolak *Euskalerriko Atlas Etnolinguistiko*-rako (EAEL, 1984-1990) Arakilgo euskararen berri franko bildu zuen duela bi hamarkada, Murgindueta eta Ihabarko emaitzak argitaratu ez baziren ere; ikertzaile donostiarrak datu xorta bat gure eskura utzi du eta emaitza horiek Murgindueta herrian Etxaidek 1967an bildu zituenekin alderaturik, ohar xume batzuk egitea on izan daitekeela uste dugu, dakargun lana oso gauza apala eta llaburra dela jabeturik ere. Arakilgo datuak baliatzean kontuz ibiltzen lagunduko duelakoan dakargu, Arakilgo mintzoa aztertu nahi duen ikertzailea behaztopez hasieratik jakinaren gainean egon dadin.

6. ALDAKETA ADIBIDE BATZUK

Aralarko apez Inozenzio Aierbek Koldo Mitxelenari 1956an adierazi zionez, Uhartan, Irañetan, Murginduetan eta Ihabarren **j*-ren ordaina *x*-txistukari sabaiaurrekoa zen hiztun zaharren artean, baina *j*-belarea gazteetan. *Erizkizundi Irukoitz*-eko (EI) Irañetako datuetan (1922-25), *xan*, *xakin* eta *xegi* ‘jaiki’ aldaerak ageri dira, baina guk ondoko Ihabarren 1983an, *jan*, *jakin*, *jo*, *jokatzea* eta *joan* aldaera belaredunak bildu genituen eta Irañetako oraingo euskararen ere, *xegi* izan ezik, aldaera belarea entzun dugu: *jeio* ‘jaio’, *jarri*, *jan*, *jegi* ‘jaiki’, *jetxi*, *jaso*... K. Artolak *xei* ‘jaiki’ bildu zuen Murginduetan, baina Arakilgo bere datuetan ere *j* belarea nagusi da.

Kontsonanteen taldean *-rtz-* duten Irañetako bi aldaera ageri dira EI-n: *ortzillere* eta *ortzegun* zehazki; egun Irañetan *bost*, *beste*, *ostegun* eta *ortzillere* aldaerak bildu ditugu eta beraz, iduri luke *-rtz-* > *-st-* kontsonante taldearen aldaketa, lexikoan barrena emeki-emeki lerratu dela, ez bat batean. Irañetatik ekialdera Murginduetan *ostegun* eta *ostillere* aldaera *-st-* dunak ageri dira Etxaideren 1967ko eta Artolaren 1985eko emaitzetan; Murginduetakoa da *beste* aldaera, gainera (1967). Kontsonante talde honekin lotura sistemikoa duten *bost* eta *bestia* ‘beste’ aldaerak bildu genituen guk 1983an Ihabarren eta herri honetan berean *bost* aldaera dakar Artolak ere. Ikertzaile honek berak *beste* aldaera dakar ondoko Gulibarko Larunben eta aldakako Txulapain ibarreko Beorburu herrian *bertze* eta *bestze* aldaerak; Txulapaingo Usi herrian, berriz, *bertze*, *berste* eta *beste* bildu zituen.

Datu hauek *-rtz-* / *-st-* kontsonante taldeen jokaeraren eskualdeko sistema osoki islatzen ez badute ere, polimorfismo egoera honek, XX. mendeko Arakilen eta inguruan ezaugarri honetan aldaketa zenbait emeki-emeki gertatu dela salatzen du. Aldaketaz mintzatzea gehiegi bada, “aldakortasun” hitza erabiltzea zuzenagoa da agian: Arakilgo hitz zenbaitetan bederen, elkarren ondoan dauden herri batetik bestera *-rtz-* taldea *-st-* taldera aldatzeko aukera, edo herri batean hitz zenbaitetan kontsonante talde bat bestera bi belau-nalditan aldatzea, aldakortasuna da funtsean. Arakil eta Gulibar ondoko Txulapainen ere polimorfismoa nabarmena da.

Goiko bokalen eta ondoko mugatzailearen artean gertatu ohi diren epentesietan ere badirudi aldakortasun zenbait izan dela: XIX. mendeko Gastesi idazle irañetarrak *-i + a > -ie* egiten zuen eta halaxe dakar *EAEL*-k ere Irañetan (1978), baina *EI*-k *egiye* dakar eta egun *-iye* entzun daiteke Irañetan, epentesia sistematikoa ez bada ere. Bokal belareari alderantzizkoa gertatzen zaio: Gastesik *-u + a > -ube* usu egiten zuen eta *EI*-k *eskuben* dakar, baina egun *-ue* entzuten da Irañetan (Erdozia 2004a: 489). 1983an Ihabarko emaitzetan epentesirik gabeko *burue & egie* bildu genituen eta K. Artolaren datuetan ere ez da ageri (1992: 192), baina Urritzolan bada *-iye* zenbait. Bestalde, mende hasierako *Erizkizundi*-an Irañetako ablatiboko atzizkia *-ti* dela ageri da eta ‘apoa’ *kunkun* deitzen dela, baina egun Irañetan *-tik* eta *zarrapo* entzuten dira; *EI*-ko datuak zuzenak ote dira? Ez jakin.

Hizkuntza-aldaketa baten arrazoi zehatzak aurkitzea lan zail eta konplexua da gehienetan; Leonard Bloomfield-*ez* geroztik badakigu (1933), gertatzeko aukera zuten aldaketa batzuk gertatzea zeren ondorioa den zehazki jakitea, eta aukera berbera zuten beste batzuk ez gertatzea zeren ondorioa den zehazki jakitea, oso gauza zaila dela. Azalpena iritsi gabe izanik ere, hizkuntza-aldaketa baten deskribapena ongi egitea ez da hutsaren hurrengo izaten; Arakilgo hizkuntza-aldaketen berri ez dugu ezagutzen erdizka baizik, gertakarien arrasto batzuk ditugu soilik, ez dugu gertatu dena garden salatzen duen hizkuntza-datu geografiko eta kronologiko osatu sistematikorik.

Prestijiozkotzat jotzen diren aldaera zenbait, eskualde zabaletan kurri dabilzan aldaera hobetsi batzuk, ondoko ibarreko euskaldunei usu entzun zaizkien beste aldaera batzuk, igandeoroko mezan entzun daitezkeen beste batzuk, herri jakin batean erabiltzen ez direnak, herri horretako hizkuntza-inkesta bateko erantzunetan aurki ditzakegu; hau ez da batere harritzeko kontua euskal hizkuntza-azterketetan. Irañetako Timoteo Beraza Goldarazanak (1922, ama uhartearra, aita irañetarra), “ostu” *dotrinen* ibiltzen zela diosku, baina berak *ebatsi* esaten du. Inkestatzaile kanpotarraren aitzinean, inkestarren lehen egunean gehien bat, eta jokaera mimetikoa bitarte, herriko aldaera ez, ondoko eskualde zenbaitetan nagusi den beste aldaera prestijioitsuago zenbait emateko ohitura izaten dute usu inkestari erantzuten dioten lekukoek, bereziki inkestatzailea beren eskualdekoa ez baldin bada.

Corpus jakin batean hizkuntza-aldaketa naturalak (kronologikotzat ditugunak) sumatzean, polimorfismoko egoera ikustean eta inkestetako bildumetako erantzunak eskuartearen erabiltzean, herri batean benetan gertatu den aldaketa bat, mimesi arrazoiengatik herriko inkestan ageri den kanpoko erantzun edo aldaera batetik bereizteko aski datu izatea, ez da beti lortzen den egoera, baina bide hori urratzen eginahalak egin behar ditu ikertzaileak.

7. INKESTETAKO EMAITZEN KONPLEXUTASUNA

Hona dakargun Arakilgo hurrengo adibide sortak argi eta garbi erakusten du inkestetako datuetan konplexutasun maila bat baino gehiago egon ohi dela: Murginduetakotzat ageri den, baina itxuraz Murginduetakoa ezin izan daitekeen erantzun baten ondoan, badira beste batzuk, agian Murginduetakoak izan litezkeenak, eta badira beste batzuk, ziurtasunez Murginduetakoak direnak; hau guztia, ordea, hizkuntza-geografiaren logikaren arabera dio-gu, ez aldaera hau ala beste hura Murginduetan euskaldunek zinez erabiltzen zutela ziurtasunez dakigulako. Datuetan badira Murginduetako bi erantzun sail, bata A. M. Etxaiderena eta bestea K. Artolarena; lehen saila 1967 urte hasierakoa da eta bestea 1985ekoa. Datuok hobeki ulertzeko Artolak berak Arakilgo Ihabarren eta Urritzolan nahiz Gulibarko Larunben laurogeiko hamarkadan bildu emaitza batzuk dakartzagu; Arakilgo Egiarretako emaitzak Mikel Elbirak bilduak dira; *EDEL*-k Sorkunde Aldatzen bidez Irañetan 1978an Zezilia Unanuarengandik (1905) bilduak ere sartu ditugu, ikuspegi osoagoa izateko; Irañetako *fago* ‘pagoa’, *giltzurriñ* eta *listu* ‘txistua, ttua’ aldaerak, berriz, guk Timoteo Beraza Goldarazena jaunarengandik bilduak dira (2005):

Irañeta	Murginduetakoa (1967)	Murginduetakoa (1985)	Ihabar	Egiarreta	Urritzola	Larunbe
<i>amaika</i>	<i>ameka</i>	<i>amaikel-ä</i>	<i>amaika</i>	<i>amika</i>	<i>amaika</i>	<i>ameka</i>
<i>san</i>	<i>esan & erran</i>	<i>esan</i>	<i>esan</i>	<i>esan</i>	<i>esan</i>	<i>esan</i>
<i>fago</i>	<i>bago</i>	<i>pagua</i>			<i>pagua</i>	<i>bagua</i>
<i>aun</i>	<i>eun</i>	<i>aun</i>	<i>aun</i>	<i>eun</i>	<i>eun</i>	
<i>irutan ogei</i>	<i>irutan ogei</i>	<i>irurogei</i>	<i>iru(e)tan ogei</i>	<i>iruetan ogei</i>	<i>irurobei</i>	<i>iruetan ogei</i>
<i>lautan ogei</i>	<i>lauetan ogei</i>	<i>laurogei</i>	<i>lauetan ogei</i>	<i>lautan ogei</i>	<i>laurobei</i>	<i>lauetan ogei</i>
<i>liyo</i>	<i>ligu</i>	<i>liyo</i>	<i>liyo & ligo</i>	<i>li(g)ua</i>	<i>ligua</i>	<i>liyo</i>
<i>egiteye</i>	<i>egitaie</i>	<i>eitaie</i>	<i>egitaie</i>	<i>egitaie</i>	<i>egitaye</i>	<i>eitegie</i>
<i>arrotze</i>	<i>arrautziek</i>	<i>arrotze</i>	<i>arrotze</i>	<i>arrol(t)zia</i>	<i>arroltze</i>	<i>arroltze</i>
<i>iyó</i>	<i>iyotzera</i>	<i>i(y)ó & iótzen</i>	<i>igo & goratu</i>	<i>io</i>	<i>io</i>	<i>ién & iáten</i>
<i>amiru</i>	<i>amiru</i>	<i>amiru & ameiru</i>	<i>amiru & amairu</i>	<i>amiru</i>	<i>amiru</i>	<i>amiru</i>
<i>biyetz</i>	<i>beatz</i>	<i>beatz</i>	<i>bietz</i>	<i>biatz & beatz</i>	<i>beatz</i>	<i>biatz</i>
<i>azazkal</i>	<i>azazkal</i>	<i>azazkal</i>	<i>azazkal</i>	<i>azazkal</i>	<i>azazkal</i>	<i>azazkal</i>
<i>esenie</i>	<i>esene</i>	<i>esene</i>	<i>esene</i>	<i>esne</i>	<i>esne & esene</i>	<i>esene</i>
<i>giltzurriñ</i>	<i>giltzurriñ</i>	<i>giltzurriñ</i>	<i>errai</i>	<i>giltzurriñ</i>	<i>giltzurriñ</i>	<i>giltzurriñ</i>
<i>listu</i>	<i>listu</i>	<i>listu & listu</i>	<i>listu & listu</i>	<i>listu</i>	<i>listu</i>	<i>listu</i>
<i>uriñ</i>	<i>uriñ</i>		<i>uriñ</i>	<i>uriñ</i>	<i>uriñ</i>	
<i>txilgor</i>		<i>txilborra</i>	<i>txilborra</i>	<i>txilborra</i>	<i>zilko</i>	

Ameka / amaika & amaikä: Etxaideri inkestan hala eman bazioten ere, iduri luke *ameka* berrikuntza ezin izan daitekeela Murginduetakoa, lekukoak nonbait entzun edo ikasia baizik; Arakilen ez da *ameka* gehiago ageri eta Gu-

libarko Larunberaino joan behar da aldaera hau berriz entzuteko; eskuin, Txulapainen, Atetzen, Imozko Muskitzen, Ultzaman eta bertatik ekialdera *ameka* nagusi da. Egiarretako *amika* aldaera goiti ageri zaigu berriz Larraunen eta Araitzen, eta baita erdialderago Imozko Etxalekun edo Basaburuko Berueten ere. Irañetako *amaika*-ren jarraipen logikoa da Lakuntzako eta Unanuko *ameika* aldaera.

Erran / esan: guztiz berezia da aldaera hauekin Arakilen gertatzen dena. Etxaidek *erran* eta *esan*, biak bildu zituen Murginduetan (1989: 317 eta 393 vs. 313), baina Artolak *esan* baizik ez, hala Arakil guztian (Murginduetan, Ihabarren, Egiarretan eta Urritzolan; Ekain ere ezagutu zuen lekuko bat, Pedro Berjera izenekoa, eta honek ere *esan* erabiltzen zuen), nola Gulibarren. Guk ere, *esan* aldaera bildu genuen Ihabarren 1983an. Artolaren Arakilgo lekukoak 1898-1906 artean sortuak dira guztiak eta beren gurasoetarik bat bederen, arakildarrak ziren beti: murgietarraren kasuan, ama ihabartarra eta aita murgietarra; Artolaren Ihabarko bi lekukoaren kasuan, batarenak ihabartarra eta irañetarra ziren eta bestearnak, ama uhartearra eta aita ihabartarra. Etxaideren Murginduetako lekukoaren gurasoak ez dakigu non sortuak ziren.

Bonaparteren XIX. mendeko oharretan ageri denez, Uharten eta Irurtzunen, Itza zendeako Eritzen eta Saratsan, nahiz Antsoain zendeako Añezkarran, *esan* aldaera erabiltzen zen, ez “*erran*” (Mitxelena 1977: 296. or., 28. oinoh.). K. Artolak berak, Gulibarko Zian eta ondoko Txulapaingo Beorburun eta Untzun ere *esan* aldaera bildu du.

Jose Mari Satrustegik dakarrenez, ordea, Arakil-Uhartetik eskuin, Zuhatzun edo Ekain, *erran* aldaera erabiltzen zen (1999: 343). Irañetan sortu zen Pedro Diez de Ultzurrun apezak zioenez, Arakilen *erran* aldaera erabiltzen omen zen eta berdin zioen Pedro Diez de Ultzurrun sendagileak ere. Honen seme den Kikek dioskunez, zuhatzuar bat ezagutzen du, berrogeita hamabost urte ingurukoa, aita Zuhatzukoa zuena eta *erran* aldaera erabiltzen omen zuen gizon hark. Bestalde, Timoteo Beraza lekukoak dioskunez, Irañetan *esan* erabiltzen da, baina bere osaba ihabartar batek *erran* ibiltzen omen zuen; cf. Erdozia (2004a: 496). Nabarmena denez, “*erran*” aldaerak baditu lekukotasunak alde, baina zinez harritzeko modukoa da, halaz ere, Artolak laurogeiko hamarkadan Arakil guztian *esan* baizik bildu ez izana, “*erran*”-en aztarnarik gabe. Argia eta egia zernahi izanik ere, zail dago auzi hau trenkatzea: bi aldaerak ibiltzen ote ziren Arakilen, ala *esan* baizik ez?

Bago / pago: bi aldaeron artean Murginduetan zein erabiltzen zatekeen edota biak ibiltzen ote ziren ziurtasunez jakitea ez da aise; Murginduetan Etxaidek bildu *bago*-ren kide hurbilena Gulibarko Larunben ageri zaigu ditugun datuetan, baina zorigaitzez, erantzunak falta dira Ihabarren eta Egiarretan; *bago* aldaerak Arakilen zukeen hedadura ziurra jakitea edota erabiltzen zela ziurtasunez baieztatzea, neke da, areago Urritzolan *pago* bildu zela ikusirik. Imozko Muskitzen, Basaburuko Itsason, Atetzen, Ultzaman, Anuen, Esteribarren, Baztan-Bidasoan eta ekialdean *bago* da erabiltzen den aldaera; *pago* Burundan, Larraunen, Araitzen, Atezko Beuntzan, Imozko Etxalekun eta Basaburu Nagusiko Berueten ageri da, besteak beste. Sinesgarria da Irañetako *fago*, Arruazun izan ezik Bakaikutik Uharteraino aldaera horixe bildu delako (Erdozia 2001: 167); Arruazun *pago* erabiltzen da.

Eun ‘100’ / *aun*: gauza jakina da Sakanan *eu* diptongoa *au* bilakatu dela, Burunda barne; Murginduetan eta Ihabarren *auri* ‘euria’ eta *auli* ‘eulia’ bildu dira. Bilakabide hau, gainera, hedadura handikoa da, hego-nafarrera ia guztian gertatu da; Arakil ondoko Gulibarren, Odietan, Ezkabarten eta Olaibarren, ordea, ez da ageri, baina bada xx. mende hasierako Txulapain ibarreko Nabazko *EI*-ren emaitzetan. Murginduetako *aun* eta *eun* aldaerak sinesgarriak dira, batak nahiz besteak kideak baitituzte: *aun*-ek ezker-eskuin Irañetan eta Ihabarren, eta *eun*-ek, Arakilgo ekialdean Egiarretan eta Urritzolan; goiti, Larraunen, Araitzen, Imotzen edo Basaburu Nagusian ere *eun* erabiltzen da; ekialdera aldaera hau bera dago Erroibarren, Esteribarren, Doneztebe alderdian, Bertizaranan eta Bortzerrietan; Atetz, Ultzama, Anue, Baztan, Aezkoa, Zaraitzu edo Burundakoa da, berriz, *egun* aldaera.

Adierazteko modukoa da Sakana erdialdeko *au* (< *eu*), Arakil ekialdean *eu* dela, Gulibarren bezala, baina Txulapainen *au* da, eta Odietan, Ezkabarten eta Olaibarren, berriz ere *eu* da. Zalantzarik gabe, itxura bitxiko irudi hau hobeki ulertuko genuke Irurtzun alderdiko euskararen izaera hobeki ezagutuko bagenu, irudia osorik eta ulergarriago aurkituko baikenuke, baina dialektologialariak ohitu beharra du honelako irudi ez osoetara; peko alderdian, hego-nafarreraren eremuan, *au* nagusi zen.

Irutan ogei / *irurogei* eta *lauetan ogei* / *laurogei*: adibide hauetan iduri luke Etxaideren Murginduetako datuak Artolarenak baino hobeki ezkontzen direla Arakilgo mintzoarekin, ezker-eskuin jarraipena baitute, baina ez dago horren garbi; litekeena da *irurogei* eta *laurogei* Murginduetan aldaera zaharrak izatea ere, “-etan ogei” egitura berri hedatuak oraino itzalean utzi ez dituenak: egia esan, guk Irañetan *iru(r)ogei* eta *larogei* entzun ditugu, baina Erdoziak *lautan ogei* (2004a: 512). Antzera esan daiteke bakartuxe gelditu diren Urritzolako *irurobei* eta *laurobei* aldaerez ere. K. Artolaren Urritzolako lekukoak ama Araizko Azkaratekoa baitzuen, bertan ere bila liteke aztarna: *irurogei* aldaeraz gainera, *larogei* ere ageri da Azkaraten (Etxaide 1989). Gipuzkoako erak eta euskara estandarra “irurogei” edo “la(u)rogei” bezalakoak hedarazten eta “-etan ogei” egitura ordezkatzan aritu ahal izan direla ere ezin atzendu da.

Ligu ‘lihoa’ / *liyo*: Imozko Muskitzen eta Etxalekun batetik, eta Arakilgo Urritzolan, Egiarretan eta Ihabarren ere bildu da *ligu*, Sakanako erdialderat goazelarik gehiago ageri ez dena. Irañetako *liyo*, Ihabarren ere ageri zaiguna, besteak beste, Lakuntzan, Unanun edo goiti Larraunen ere erabiltzen da. Hitz honetan zinez dirudi Murginduetan bidegurutzean zegoela eta Etxaideren *ligu* nahiz Artolaren *liyo*, biak zilegi direla.

Egitaie ‘igitaia’ / *eitaie*: Arakil ia guztian bildu du Artolak *egitai*, Etxaidek Murginduetan bezala eta beraz, guztiz sinesgarria dirudi Murginduetako aldaera izatea; *EAEL*-k Irañetan berean *egiteye* dakar, gainera; guk *egiteie* entzun dugu Irañetan. Artolak Murginduetan bildu *eitaie* ere ez da ezezaguna inguruan: J. L. Erdoziak *ittaiye* dakar Irañetan, *eitteiye* Uharten eta *eittiya* Arbizun eta Lizarragabengoan. Kasu honetan, iduri luke Etxaideren Murginduetako *egitaie* aldaera zaharragoa dela eta Arakilgo jatorragoa, Artolak Murginduetan bildu zuen *eitaie* baino, baina ustea baizik ez da hau, guztizko garrantiarik gabekoa; hori bai, lehena bigarrena baino hemezortzi urte lehenago bildua da eta hori bada zerbait jatortasunari dagokionez.

Arrautziek / arrotze: Artolak Murginduetan bildu *arrotze* aldaera koherentea da ondoko Irañetako eta Ihabarko emaitzekin; Etxaideren *arrautziek* aldaera diptongodunak, berriz, ez du kiderik, baina aldaera gordetzaila ere izan daiteke. Egiarretatik ekialdera *arrotze* aldaera albokariduna dugu, Larraungo Oderitzen eta Baraibarren, Basaburuko Berueten, Imotzen, Atezko Beuntzan, Ultzaman, Anueko Aritzun eta ekialderagoko beste ibarretan entzun ohi den bezala. Ezker, *arrultze* bildu du Artolak Uharten, baina Erdoziak *arrotze* dakar herri honetan; ondoko Irañetan *arrotze* dago (*EAEL*; Erdoziak *arrotzie* dakar eta guk *arrotziek* plurala bildu dugu). Sakana erdialdean sudurkaridunak ibiltzen dira, Landuchioren *arrauntza*-ren gisan: *arruntze* Unanun, *arrontze* Arbizun eta Lizarragabengoan, *arrontza* Bakaikun, *arrauntza* Ziordian...

Iyotzera ‘igotzera’ / *i(y)o* & *iótzten*: adibide honetan ere, Murginduetako polimorfismoa ezker-eskuin ageri diren aldaeren arabera da: *iyó* Uharten eta Irañetan bildu da (Erdozia), baina erabiltzen da Larraunen edo Imotzen ere; bestalde, Artolak bildu *io*, Arakilgo ekialdean Egiarretan eta Urritzolan ageri da. Berezitasun pizuzkoena Gulibarko Larunben ageri da, *i(g)en* & *i(g)an* Nafarroa Garaiko erdialde ugarian eta ekialdean nagusi den aldaera baita; *EI*-k Txulapaingo Nabatzen *ian* dakar XX. mende hasieran eta Etxaideren 1965-67 bitarteko emaitzetan *iyán* dago Berueten eta *iyen* Atetzen; Ultzaman *igen* & *ien* dakar eta bertatik ekialdera *iyen*, *igen* edo *igan* erako aldaerak nagusitzen dira. Berezia da Sakana erdialdean ageri den eta Arakilen sumatzen ez den *itzoo* ere; Lakuntzan halaxe ageri da eta Unanun *etzao* & *itzau*. Erdoziak Uharten eta Irañetan *iyó* bildu du, ez “itzoo”.

Zalantzarik gabe, herri guztietan erabiltzen baitziren, Arakilgo euskarari dagozkio *amiru* (Larraunen, Imotzen, Berueten, Atetzen, Ultzaman, Anuen eta Esteribarko Iragin eta Leranotzen bederen baliatzen dena; Sakana erdialdean, berriz, *ameiru* dago eta Burundan *amairu*), *beatz* & *biatz* ‘eria’, *azazkal*, *esene* ‘esnea’, *giltzurriñ*, *listu* & *lixtu* ‘ahoko txistua’ edo *uriñ* aldaerak. Murginduetakoa da *txilbor* ere, Irañetan *txirgol* (1978) & *txirbol* (Erdozia 2004a) dena (*EI*-k *zille* dakarren arren), eta Uharten, berriz, *txilbor*; Burundan eta Sakana erdialdean *zil(l)* ageri da; eskuin Urritzolako *zilko*-k sinesgarritasuna hartzen du Txulapaingo Beorburuko *txilko*-rekin, zeina (*t*)*xilko* aldaeran Imozko Muskiztik eta Ateztik eskuin, ekialderaino hedatzen den.

Arestian aipatu dugun bezala, inkestetako erantzunetan itxuraz Murginduetakoa ezin izan daitekeen hitz bat bederen badela dirudi: *ameka*, hain zuzen ere; adibide bat ageri baldin bada, zerk ziurtatzen ahal digu Murginduetan erabiltzen ez zen, baina erantzunetan ageri den beste aldaerarik edo hitzik ez dagoela? Murginduetakoa izan liteke *bago* aldaera, baina horretaz zurrago egoteko, Ihabarren eta Egiarretan nola esaten zen jakin beharko genuke, eta ez dakigu. Zalantza dugu *eun* ‘100’ Murginduetakoa ote zen ere: baliteke ez izatea eta baliteke izatea; ez jakin. Bestalde, oso litekeena da 1967an bildu zen *ligu* Murginduetan erabilitako hitza izatea, baina ia hogeitaz geroago ageri dena *liyo* da. Diptongoa daraman *arrautziek* aldaera itxuraz gordetzailaren sinesgarritasunaz ere, zer esan jakin gaberik gaude. Aldaera sinesgarriak ditugu *amiru*, *azazkal*, *beatz*, *esene*, *giltzurriñ*, *lixtu* edo *uriñ*, esaterako. Adierazi dugu arestian *erran* aldaeraren auzia trenkatzea zinez zaila dela.

BIBLIOGRAFIA

- ALTUNA OTEGI, F., 1995, "Acto contriciocoa eriotzaco orduracò: Garcia de Albeniz araiarraren araberezko eskuizkribua (1778)", *ASJU* 29/1, 83-132.
- ARAKAMA, J. M., 1994, "Uharte-Arakilgo dotrina", *ASJU* 28/2, 569-613.
- ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA, 1984-1990, *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa (EAEL)*, bi liburuki, Donostia.
- ARTOLA, K., 1992, "Hegoaldeko goi-nafarreraren azentua dela-ta (hurbiltze saiakera)", *FLV* 60, 187-227.
- BLOOMFIELD, L., 1933, *Language*, Holt, New York.
- BRASSEUR, P., 1985, "Les frontières dialectales de la Normandie", in *Actes XVI congrés international de linguística & filologia romàniques, Palma de Mallorca, 7-12 d'abril de 1980*, tom II, secció I, Moll, Palma de Mallorca, 573-590.
- BRITAIN, D., 2004, "Space and spatial diffusion", in J. K. Chambers, P. Trudgill & N. Schilling-Estes (arg.), *The handbook of language variation and change*, Blackwell, Malden - Oxford - Carlton, 603-637.
- CAMINO, I., 1999-2001, "Goñerriko hizkera", *ASJU* 33/1, 34/1, 35/2.
- , 2003, "Hego-nafarreraren egituraz", *FLV* 94, 427-468.
- , 2004a, *Hego-nafarrera*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- , 2004b, "Irizpide metodologikoak egungo Euskal Dialektologian", *Euskera* 49/1, 67-102.
- CAMPS, Ch., 1986, "Limites linguistiques d'après l'atlas linguistique et ethnographique du Languedoc occidental", in *Variation linguistique dans l'espace. Dialectologie et onomastique. Actes du XVIIème Congrès International de Linguistique et Philologie Romanes (Aix-en-Provence, 29 août - 3 septembre 1983)*, vol. 6, Université de Provence, 117-135.
- ERDOZIA, J. L., 2001, *Sakana erdialdeko euskara*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- , 2004a, "Irañetako euskara", *FLV* 97, 487-517.
- , 2004b, *Sakanako hiztegi dialektologikoa*, Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia, Iruñea & Bilbo.
- , 2005, "Sakanerak", *FLV* 98, 59-77.
- ETXAIDE, 1989, *El euskera en Navarra: encuestas lingüísticas (1965-1967)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- EUSKALTZAINDIA, 1922-25, *Erizkizundi Irukoitza*, A. M. Etxaide (arg.), Euskaltzaindia, Bilbo.
- FERNÁNDEZ REI, F., 1985, "Áreas lingüísticas do galego actual", in *Actes XVI congrés international de linguística & filologia romàniques, Palma de Mallorca, 7-12 d'abril de 1980*, tom II, secció I, Moll, Palma de Mallorca, 485-498.
- , 1991 [1990], *Dialectología da lingua galega*, Xerais, Vigo.
- FLORISTÁN SAMANES, A., 1982, *Urbasa y Andía, solar de los navarros*, Diario de Navarra, Iruñea.
- GAMINDE, I., 1985, *Aditza ipar goi nafarreraz* (hiru liburuki), UEU, Iruñea.
- GARCÍA ARIAS, X. LL., 1997, "El continuum llingüísticu ente'l gallegu y l'asturianu", *Lletres asturianas* 62, 43-50.
- GUTIÉRREZ TUÑÓN, M., 1985, "La frontera entre el leonés y el gallego en el Bierzo (León)", *Actes del XVI Congrès International de Linguística i Filologia Romaniques (Palma de Mallorca, 1980)*, II, Moll, Palma de Mallorca, 517-521.
- HUARTE, J. V., 2003, *Estudio del léxico de la casa en los dialectos vascos de Navarra*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- IRIZAR, P., 1992a, *Morfología del verbo auxiliar alto navarro septentrional*, Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia, Iruñea & Bilbo.
- , 1992b, *Morfología del verbo auxiliar alto navarro meridional*, Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia, Iruñea & Bilbo.
- IVIC, P., 1962, "On the structure of dialect differentiation", *Word* 18, 33-53.
- KARASATORRE, R., ERDOZIA, J. L. & ULAIAR, E., 1991, *Etxarri-Aranatzko euskara eta Arañaz elkarteko hiztegia*, Alttaffaila, Tafalla.
- MELIS, L., VERLINDE, S. & DERYNCK, P., 1989, "La notion de dialecte supralocal: essai de définition dialectométrique", *Orbis* 33, 70-132.
- MITXELENA, K., 1977, *Fonética Histórica Vasca*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.

- RECASENS I VIVES, D., 1985, "Contribució a l'estudi de las àreas dialectales de transició", *Actes del XVI Congrés Internacional de Lingüística i Filologia Romaniques (Palma de Mallorca, 1980)*, II, Moll, Palma de Mallorca, 539-555.
- SALABERRI ZARATIEGI, P., 1998, "Arabako nafar hizkeren inguruan", in I. Camino (arg.), *Nafarroako hizkerak*, UEU, Bilbo, 49-87.
- SATRUSTEGI, J. M., 1987, *Euskal testu zaharrak (I)*, Euskaltzaindia, Iruñea.
- , 1998, "Arruazuko gabon-kanta zaharra", *FLV* 79, 515-519.
- , 1999, "Arakil aldeko euskara", *FLV* 81, 343-360.
- SAURA, J. A., 2001, "La transición lingüística en el Pirineo Central (II)", *Revue de Linguistique Romane* 65, 321-340.
- ULAYAR, E., 1983, "Lakuntzako herriak eta Euskaltzaindiak Blas Alegria idazleari, egiten dioten mendeurrenko gorazarrea", *Euskera* 28/2, 315-334.
- , 1987, "Juan Miguel Gastesiren bi "mayatzeco Illabetia: Mariaren Illabetia" (Marie Santisimeren Devocioa) 1850-1854", *FLV* 49, 53-63.
- ZELAIETA, E., 2005, "Erdialdearen eta nafarreraren arteko trantsizioa", EHUko tesi argitaragabearen atala, Gasteiz.
- ZUAZO, 1994, "Burundako hizkera", in R. Gómez & J. A. Lakarra (arg.), *Euskal Dialektologiako Kongresua (Donostia, 1991ko irailak 2-6)*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 297-364.
- , 1998, "Euskalkiak, gaur", *FLV* 78, 191-233.
- , 2003, *Euskalkiak, herriaren lekukoak*, Elkar, Donostia.

LABURPENEA

Artikulu honetan alderdi batetik Nafarroa Garaiko Arakil ibarreko euskaren ezaugarri sorta bat aztertu da eta bestetik, inkestetan bildu diren emaitzen fidagarritasunaz oharrak egin dira. Oraintsu argitaratutako bi lanetan, Irañetako eta Arakilgo euskarak Sakana erdialdekoarekin bete-betean bat egiten duela defendatu da (Erdozia 2004 eta 2005), baina gure iritzian, ikuspegi honek Irañetako eta Arakilgo mintzoak eskuin dituen lotura hertsia itzalpean uzten ditu: izan ere, Sakana erdialdean ez bezala, Nafarroa Garaiko erdialde zabalean eta ekialdean ageri diren ezaugarri eta berrikuntza sistematiko ugari ditugu Irañetako eta Arakilgo euskaran. Lanaren bukaeran Arakilgo inkestetan ageri diren zenbait erantzun zinez bertako euskarari dagozkiola jakiteko dagoen zailtasunaren berri ematen da.

RESUMEN

En este trabajo se analizan diversas características de las que participa el vasco del valle de Araquil (Navarra) y hacemos observaciones con respecto a la fiabilidad que ofrecen determinados datos obtenidos en encuestas lingüísticas. En publicaciones recientes se ha defendido que el habla de Irañeta y de Araquil está absolutamente entroncada en la variedad dialectal de la Barranca central (Erdozia 2004 y 2005), pero a nuestro juicio, este análisis obvia las estrechas relaciones que el euskara de Irañeta y Araquil tiene con hablas centrales de Navarra e incluso con características que se extienden hasta al este de Navarra. Existen numerosos rasgos lingüísticos sistemáticos, muchos de ellos innovaciones, que aparecen en una extensa zona central y también al este de Navarra, que observamos en el vasco de Araquil y de Irañeta, pero que no son compartidos por el habla de la Barranca central. En la última parte del artículo mostramos la dificultad que existe para dar visos de verosimilitud a ciertas formas lingüísticas recogidas en encuestas realizadas en el valle de Araquil.

RÉSUMÉ

On analyse ici les différentes caractéristiques de la langue basque de la vallée d'Araquil (Navarre) et nous faisons des observations quant à la fiabilité de cer-

taines données issues des enquêtes linguistiques effectuées. On maintient, dans des publications récentes, que la langue parlée à Irañeta et à Araquil est absolument liée à la variété du dialecte du centre de la Barranca (Erdozia 2004 et 2005), mais nous pensons que cette analyse révèle les liens étroits qui existent entre le basque d'Irañeta et d'Araquil et les dialectes du centre de la Navarre et même avec des caractéristiques qui vont jusqu'à l'est de la Navarre. Il y a de nombreux traits linguistiques systématiques, beaucoup d'entre eux sont des innovations, qui apparaissent dans une vaste zone centrale et aussi à l'est de la Navarre, que nous observons dans la langue basque d'Araquil et d'Irañeta, mais qui ne sont pas communs au dialecte du centre de la Barranca. Nous montrons, dans la dernière partie de l'article, la difficulté qui existe pour donner des apparences de vérité à certaines formes linguistiques recueillies dans des enquêtes effectuées dans la vallée d'Araquil.

ABSTRACT

In this study, different features of the Basque language spoken in the Valley of Araquil (Navarra) are analysed and observations are made regarding the reliability of certain data obtained from linguistic surveys. Recent publications defend the argument that the language spoken in Irañeta and Araquil is absolutely located within the dialectal variety of the central Barranca (Erdozia 2004 and 2005), but in our opinion, this analysis ignores the close relationship which the Basque spoken in Irañeta and Araquil have with central Navarran speech and even characteristics which spread as far as the east of Navarra. Numerous, systematic, linguistic features, with many innovations among them, which appear in a large central area and in the east of Navarra can also be observed in the Basque of Araquil and Irañeta while not being shared by the speech of the central Barranca. In the last part of the article, we explain the difficulty involved in lending credibility to certain linguistic forms collected in surveys performed in the Valley of Araquil.